

SENITARTE JAIA

Doinua: "Maritxu, nora zzoaz"

1

- Urte zaharra amaituta, barrian aurrera
- Zahar-barritan badoa munduko karrera.
- Pozik alkartu gara gaur senitartera
- Holan dogu ohitura urtetik urtera.

2

- Hainbeste izan arren famili bakarra
- Kuadrila honek badau nunbaiten indarra.
- Hauxe da sekretua: maitasun-sugarra.
- Horregaitik daukagu alkartu beharra.

3

- Lehenengo meza da ta gero bazkaria
- Bitarikoa dogu gure janaria.
- Senitarte jaia da gure pozkaria
- Maitasunak egiten dauan miraria

4

- Zuek guraso eta gu seme-alaba
- Maitaleak ez dira alkarrentzat traba.
- Beste danak baino hau guretzat hoba da
- Prest gagoz egiteko gehiago ahal bada.

5

- Ez da nunahi ikusten holango egunik
- Ezin da, ez badago alkarmaitasunik.
- Ez jatzue faltako gure erantzunik
- Zenbat poztuten garan hau hemen entzunik!

6

- Egun on, aita-ama, aitita-amamak
- Zuentzat dira beti gure neke-lanak.
- Eta zuentzat gure txalo ta laztanak
- Pozik eginak doguz egindako danak

7

- Gutarrak asko dira gaur baino lehenago
- Eta izango dira gero ta gehiago.
- Gauza ederragorik inun be ez dago
- Gu behintzat alkarregaz bizi gara bapo.

8

- Gogoan daukaguz gaur gure aurrekoak
- Eurak eta gu gara senitartekoak.
- Egizuz, Jesus Jauna, zorionekoak
- Bedeinkatu gaizala Aita Jaungoikoak

9

- Izan daigula danok
bake osasuna
- Eta danen gainetik
alkarmaitasuna.
- Gorde daigula, Jauna,
senide zentzuna
- Gaur arte lez, euskaldun
eta fededuna.

10

- Bihotzez mila esker
danon izenean
- Pozik bizi zaiteze
ta sinismenean.
- Zuek erakutsita
bide zuzenean
- Jaunak hartu gaizala
gero azkenean.

11

- Esanak esan eta
beharko amaitu
- Alkarrekin egonda
guk ezin gogaitu.
 - Hemengoak eginda
gero be jarraitu
 - Guztiok alkartzek
kontsolatzen gaitu.

12

- Pozgarria izan da
gaur hemen esana
- Bete daigula, Jauna
esan dogun dana.
 - Isuri eiguzu gaur
grazi eder bana
 - Eta bedeinkatu Zeuk
gaurko jan-edana.

A. Martzel